

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Zuhatzu Kuartangon A-3316 errepidean urbanizazioa eta espaloia egiteko proiektua. E Fasea”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2020ko uztailaren 21eko 347/2020 Erabakiaren bidez, “Zuhatzu Kuartangon A-3316 errepidean urbanizazioa eta espaloia egiteko proiektua. E Fasea”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eragindako titularren zerrenda Kuartangoko Udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 7a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azplegituren eta
Mugikortasunen Saria
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ZUHATZU KUARTANGON A-3316 FERREDEAN URBANIZAZIOA ETA ESPALDIA EGITEKO PROIEKTUA. E-FASEA
PROYECTO DE URBANIZACIÓN Y ACERA EN LA CARRETERA A-3316 EN ZUHATZU KUARTANGO. FASE E

Esp./E.pñe. 2020/4

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALEBA m ²	
		POLIGONO	LURZALIA				BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOAK
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m ²	
		POLIGONO	PARCELA				DEFINITIVA	TEMPORAL
1/000	SEBASTIANA ZURBITU FERNANDEZ	3	712	KUARTANGO	HIRI LURRA / URBANO	ZUHAITZAK / ARBOLES	11	18
2/000	PABLO ALANA ZURBITU	3	714	KUARTANGO	HIRI LURRA / URBANO	HESI / SETO	1	4
3/000	M. PILAR ALANA ZURBITU	3	715	KUARTANGO	HIRI LURRA / URBANO	HORMATXO / MURETE	22	23
4/000	M. CARMEN FERNANDEZ LARRONDO	3	716	KUARTANGO	HIRI LURRA / URBANO	ZUHAITZAK / ARBOLES	18	20
5/000	J. ANTONIO OCHARAN LARRONDO	3	717	KUARTANGO	HIRI LURRA / URBANO	HESI / SETO	48	54